


7. kapitulua

Jarraipen eta gobernantza mekanismoak



7.1. Hitzaurrea

Erakunde bakar batek, bere kabuz, ezin du Hariak bezalako estrategia oso bat kudeatu. Estrategiaren zeharkako eta erakunde arteko izaera dela eta, atxikitako erakunde guztiak barne hartzen dituen gobernantza eredu bat behar da. Eragileen arteko koordinazioa, lankidetzaren eta elkarrizketa ezinbestekoak dira Gipuzkoako bakardadeen inguruko helburu erkideekiko lerrokatzea sustatzeko.

Hariak Estrategiaren barruko eta aldeko lankidetzako gobernantza honen ondorioa da, lehenik, zenbait erakunderen, entitatereen eta eskumen mailaren Estrategiarekiko atxikipen boluntarioa. Atxikipen horrekin adostutako esparru estrategikoa garatzeko borondatea agertuko dute, konpromisoen bidez, proiektu bultzatzaile zehatzen bidez, jarduketaren bidez eta ager litezkeen bestelako ekintzen bidez⁵⁶. Zentzu horretan, lankidetzaren beste ondorio bat dira ere diagnostiko, jarraipen eta ebaluazio prozesuak, izan ere, erakunde hauek konpromisoa hartuko dute, alde batetik, ekimen hauei dagozkien adierazleak biltzeko eta, bestetik, Estrategiaren jarraipen eta gobernantza orokorrerako aktibatzen diren taldeetan parte hartzeko.

Lankidetzako eta maila anitzeko gobernantza baten alde egitea bat dator Gipuzkoan, arlo honetan, azkenaldian garatu den lanarekin. Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gizarte Politikako Departamentuaren 20>30 Agendan aipatzen da, gobernantzaren arloko berrikuntza publikoaren esparruan, partaidetzarako eta hausnarketarako

espazioak sustatzeko beharra, gizarte politikak diseinatzeko, ebaluatzeko, gomendatzeko eta bultzatzeko.

Helburuei dagokienez, Estrategia hau artikulatzeko moduak – gomendioak ezartzen dituen esparru estrategikoen baten eta konpromiso eta proiektu bultzatzaileak definitzen dituen esparru operatibo baten edo jarduketaren planen inguruan– honako hau egitea ahalbidetzen duen koordinazio, jarraipen eta ebaluazio sistema bat eskatzen du:

- Erakunde bakoitzak bakardadeen inguruan garatutako ekimen guztiak eta ibilbide estrategikoa eta gomendio bakoitzari lotutako ekimen guztiak identifikatzea, bai eta Estrategiaren esparruko honelako jarduketak ere.
- Gomendioei lotutako konpromisoen eta proiektu bultzatzaileen arabera identifikatzea zenbait prozesu eta emaitza adierazle, onuradunen kopuruaren ingurukoak, egikaritze ekonomikoaren ingurukoak eta lortutako emaitzen ingurukoak.
- Estrategia osoaren inpaktua ebaluatzea Gipuzkoako bakardadeak prebenitu eta jorratzeari dagokionez eta, ebaluazio horren arabera, Estrategiaren garapenarekin eta egikaritzearekin lotutako elementuak (aldaketaren teoria, ibilbide estrategikoa, gomendioak edo jarduketaren planak) baztertu, berrikuntza definitu, gehitu edo balioztatzea.


- Estrategiaren kudeaketarekin, gobernantzarekin eta ezarpenarekin lotutako proposamenak egitea.
- Gipuzkoako bakardadeen aldian behingo ezagutza sustatzea, Gipuzkoako herritarren bakardadeen inguruko behar eta ezaugarri nagusiak diagnostikatzeko aukera ematen duten datuak eguneratuz, bereziki nahi gabeko bakardadearen ingurukoak.
- Estrategiaren garapenean parte hartzen duten eragileak koordinatu eta ikuspuntu tekniko batetik aholkatzea, bakoitzak bere gain hartutako konpromisoak eta proiektuak aurrera eraman ahal izateko, Hariak esparru estrategikoa operatiboa izan dadin.

56 Gorago adierazi den moduan, baliteke Estrategiarekin bat egiten duten erakundeetako zenbaitek, hasieran, konpromiso edo proiektu zehatzik beren gain ez hartzea, baina esparru estrategikoarekin bat datozen bestelako ekimenak garatzea dagokien jarduketan planaren indarraldian zehar. Beste jarduketa horiek dira "ager litezkeen bestelako ekintzak". .

Helburu hauek lortzeko, Hariak Estrategiaren lankidetzako eta maila anitzeko gobernantzan, hurrengo irudian azaldu eta jarraian

deskribatu diren baterako kudeaketarako, jarraipenerako eta gobernantzarako egiturak eta mekanismoak aurreikusi dira.

Hariak Estrategiaren Gobernantza Eredua



7.2. Estrategiaren zuzendaritza eta #HariakHub

Estrategiaren zuzendaritza, lidergoa, koordinazioa, garapena, jarraipena, ikuskapena, bultzada eta ebaluazioa, erakunde sustatzaileen esku geldituko dira: Adinberri Fundazioa eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gizarte Politikako Departamentua. Eginkizun hauek guztiak #HariakHub izeneko esparru barruan multzokatu dira. Eragiketa nukleo edo makroprozesu horren barne egongo dira Estrategiaren kudeaketa eta egikaritze egokiak bermatzeko helburu erkidea duten prozesu guztiak. Adinberri Fundazioa, Estrategiaren sustatzailea den heinean, prozesu horiek zuzentzeaz eta gainbegiratzeaz arduratuko da, eta proiektuaren tamaina eta erronkaren dimentsioa kontutan hartuta, eginkizun hauetarako kanpoko erakunde baten edo gehiagoren laguntza izango du, Estrategia behar bezala inplementatzen lagundu ahal izateko.

Honela, #HariakHub esparru barruan, hiru gobernantza egitura ezarriko dira Hariak kudeatu eta jarraitzeko, bakoitza bere eginkizunekin. Hiru egitura hauen bitartez antolatuko dira eragiketa zentroa, idazkaritza teknikoa, dinamizazioa, jarraipena, ebaluazioa, komunikazioa eta aholkularitza Jarraian azaldu dira modu xehatuagoan hiru mekanismoak.

7.2.1. Idazkaritza teknikoa

Idazkaritza tekniko honek Adinberri Fundaziotik eta Gipuzkoako Foru

Aldundiaren Gizarte Politikako Departamentutik kanpoko erakunde baten edo batzuen laguntza izango du, eta bere eginkizun eta ekintzen artean honako hauek azpimarra daitezke:

- Estrategiaren esparru operatiboaren edo bi urteko jarduketa planen plangintza egitea. Horretarako, jarduketa plan berri baten plangintza egin behar den ekitaldiaren hasieran, erakunde bakoitzak bakardadeak jorratzeko aurreikusi dituen esparru kontzeptualaren barneko ekimen zehatzak, ibilbide estrategikoak, jarduketa estandarrak eta Estrategiaren gomendioak eskatu eta bilduko ditu. Informazio bilketa hori egiteko, parte hartzen duten eragileen artean banatuko da alde zuzenetik ezarritako instrumentu-galdetegi bat.
- Parte hartzen duten erakundeek aldi behin emandako informazioari esker, atxikitzean onartutako konpromiso eta proiektuen betetzea egiaztatzea. Halaber, jarduketa plan bakoitzaren iraundian zehar, organo bakoitzak egikaritutako bestelako jarduketak identifikatzea. Jarraipen prozesu honen bidez lortutako informazioa jarduketa planen ebaluazio txostenean multzokatuko da.
- Prozesu eta inpaktu adierazleen aginte koadro bat prestatu eta mantentzea, neurri bakoitzaren inguruko informazioa lortzeko eta Estrategian esparruan onartutako proiektu bultzatzaileen ebaluazio instrumentuen plangintza egiteko,

hori guztia identifikatu eta ezagutu ahal izateko zein gomendio eta konpromiso egikaritzen hari diren modu eraginkorrean, horien inpaktua eta garatutako proiektu bultzatzaileen emaitza nagusiak.

- Ebaluazio txostenak egitea. Jarduketa planen jarraipen txostenekin batera, Estrategiaren (esparru estrategikoaren) bi ebaluazio txosten prestatuko dira. Lehenengoa, bitarteko izaera izango duena, 2024 urte amaieran egingo da eta, jarduketa planen ebaluazio prozesuetan lortutako informazioa abiapuntu hartuta, aztertu egingo du gomendioak zein neurritan betetzen ari diren behar bezala eta Estrategiaren gainerako elementuetan (aldaketaren teoria edo ibilbide estrategikoak) aurreikusitako emaitzak lortzen ari diren ala ez. Bigarrena Estrategiaren indarraldia amaitzean egingo da -2026 urte amaieran-, Estrategiaren inpaktua neurtu ahal izateko arreta ereduari eta Gipuzkoako herritarren bakardade egoerei dagokienez. Honela, lurralde honetako bakardadeen aldiari behingo ezagutzan lagunduko da eta Gipuzkoako bakardadeen aurreko II. Estrategia posible batek kontuan hartu beharko lituzkeen printzipio eta ildoen oinarriak ezarriko dira.
- Jarraipen eta ebaluazio prozesuek aholkatzen badute, esparru estrategikoaren zein jarduketa planen beharrezko aldaketak eta egokitzapenak proposatzea.

- Atxikitako erakundeei aholkularitza eta laguntza teknikoa eskaintzea Hariak esparruan onartutako konpromisoak eta proiektu bultzatzaileak sustatu eta garatzeko, hartara esparru estrategikoarekiko koherentzia ziurtatuta eta ekimeneen arteko lerrokatzea lortuta.
- Ezagutza kudeatzeko eta eskualdatzeko tresna gisa aktibatuko den Hariak webgunearen eraikuntzan eta eguneraketan laguntzea.
- Jarraipen eta ebaluazio prozesuetan zehar bildu den bakardadeen inguruko informazioa koordinatu eta Adinberri Behatokiari (AAS) jakinaraztea, behatokia elikatzen laguntzeko.
- Beharrezkotzat jotzen bada, Estrategian ezarritako zenbait gomendio egikaritu eta gauzatzea, bereziki ikerketaren eta ezagutzaren kudeaketaren arloetan.

7.2.2. Aholkularitza aditua

Hariak Estrategia prestatzeko prozesuan lortutako esperientzia kontuan hartuta, gomendagarria dirudi kanpoko aholkuari baten laguntzarekin jarraitzea. Aholkulari horrek agintaritza tekniko erreferentziala, independentea eta balioaniztuna izan beharko du bakardadeen aurreko politika publikoen esparruan. Bakardadeen arloan aditua den aholkularitza honen eginkizun nagusiak honako hauek dira:

- Aholkularitza inspiratzailea eskaintzea, Hariak ikuspegiari dagokionez, Estrategiaren gobernantza eta zuzendaritza prozesuan laguntzeko.
- Estrategian parte hartzen duten erakundeek hala eskatzen dutenean, laguntza teknikoa eta kontrastea eskaintzea, aurreikusitako jarduketak eta horien lerrokatzea sustatzeko.
- Hariak Estrategiaren esparruan bultzatzen den bakardadeen inguruko elkarrizketa publikoan parte hartzea.

7.2.3. Hausnarketa Etikorako Taldea (HET)

Hirugarrenik, Hausnarketa Etikorako Talde bat sortzea aurreikusi

da, etikaren ardatzetik orientatu ahal izateko bakardade egoerak prebenitzeko, arintzeko edo alderantzeko ekimenak eta jarduketak. Estrategian parte hartzen duten zenbait organo eta erakundetako (Gipuzkoako Foru Aldundia, udalak, hirugarren sektoreko erakundeak, Osakidetza, Osakidetza...) ordezkari profesionalak osatuko dute talde hau eta izaera boluntarioa izango du.

Hausnarketa Etikorako Talde honen helburu nagusia etikaren nukleo sustatzaile gisa jardutea da, Estrategiaren arreta ereduaren kalitateari dagokionez. Taldeari dagozkion zereginen artean, honako hauek nabarmen daitezke:

- Ekintzak lagundu eta sustatzea sentsibilizazioari dagokionez, etikaren gaineko ezagutzaren kudeaketari dagokionez, jardunbide egokien hedatzeari dagokionez, etab.
- Oro har, parte hartzen duten eragileei eta, zehazki, Estrategiarekin bat egin duten erakundeei aholkularitza eskaintzea, Estrategiaren neurri eta proiektu zehatzak diseinatu eta horien plangintza egiteko orduan. Era berean, talde honek laguntza teknikoa eskainiko du ekimen horiek prestatu eta ezarri bitartean sortutako gatazka etikoak ebazteko, horretarako gomendioak emanaz.

7.3. Gobernantza orokorra: Hariak sarea edo mugimendua

Hariak Estrategia eraikitzeko egindako partaidetza prozesua eta proposatu den gobernantza ereduak kontuan hartuta, jarraipena emango zaie edo aktibatu egingo dira jarraian zerrendatutako Estrategiaren jarraipen eta gobernantzarako lantaldeak. Talde hauek osatzen dute Estrategiaren enbrioia: Hariak sarea edo mugimendua.

- Estrategiaren jarraipena egiteko batzorde edo talde eragilea, atxikitako erakunde guztietako ordezkariak osatua. Besteak beste, talde honen eginkizunak izango dira:
 - Estrategian aurreikusitako gomendioak zein neurritan garatzen ari diren egiaztatzea eta jakinaraztea.
 - Estrategiaren ezarpen zuzenerako egokiak diren neurriak eta jarduketak proposatzea, parte hartzen duten erakundeen beharrak, eskumenak eta aukerak kontuan hartuta.
 - Erakunde bakoitzaren Estrategiarekiko atxikipena berrikustea eta atxikipen horren baliozkotze eta konpromiso txosten bat prestatzea, Estrategiaren indarraldiaren erdialdean.
 - Estrategiaren helburuak monitorizatzea eta behar diren aldaketak eta doikuntzak proposatzea.
- Hariak eraikitzeko partaidetza prozesuan zehar sortu zen talde eragile zabaldua, Hariak Estrategiaren gobernantza orokorraz arduratzen den erakunde arteko organo publiko-pribatua den heinean. Era berean, Gipuzkoako bakardadeak jorratzeari

buruzko hausnarketarako, diagnostikorako eta baterako kudeaketarako espazio bat sortuko da Estrategiaren ezarpena hobetze aldera.

- Talde sektorialak (udalak, hirugarren sektoreko erakundeak, osasuna, etab.). Talde hauetako bakoitzak koordinatzaile bat izango du, sektore bakoitzeko "Hariak enbaxadore" moduan jardungo duena.
- Proiektu edo gaien inguruko taldeak, jarduketa arlo jakin batean (hirigintza plangintza, aisialdia eta kultura, etab.) esku hartzen duten atxikitako erakundeetako ordezkariak osatuak. Talde hauek jarduketa planaren proiektu edo jarduketa zehatzen inguruan osatuko dira.